

Compte rendu de la réunion du Syndicat Mixte GARBIKI  
de collecte des déchets ménagers et assimilés  
Lundi 05 Mai 2014 à 20 heures 30

Etxeko hondakin eta idurikoak biltzeko  
GARBIKI Sindikatu Anitzaren bilkura txostena  
2014ko maiatzaren 5ean, astelehenez, 20:30ean

**Présents / Hor zirenak :** ARBELETTCHE Sylvie, DUHALDE Maïté, BERNARD Claude, LOUIT Sophie, INCHAUSPE Beñat, ALKHAT Antton, LACOSTE Xavier, DACHARY Jean-Pierre, DARRITCHON Maylis, BISCAICHIPY Maïté, ETCHÉLECU Alain, HARGOUS Jean-Michel, HARISTOY Jean-Marie, ARMENDARITZ Alain, OLHATS Jean-Michel, EDOUARD Claude.

**Absent(s) représenté(s) ou ayant donné procuration / Falta zirenak baina ordezkarri bat edo prokurazioa zutenak** : CLAVERIE Dominique (représenté par ETCHÉLECU Alain).

**Absent(s) non représenté(s) et n'ayant pas donné de procuration / Falta zirenak, ordezkaririk eta prokuraziorik gabe :** /

Le Comité Syndical s'est réuni le Lundi 05 Mai 2014 à 20 heures 30 à l'immeuble "ARY" à HASPARREN.

Sindikatu Batzordea 2014ko maiatzaren 5ean bildu da, astelehenez, 20:30ean, Hazparneko ARY eraikinean.

**1 / Approbation du compte rendu du Comité Syndical du 22/04/14 :**

Le compte rendu de la séance du 22 avril 2014 est approuvé à l'unanimité.

**2 / Désignation d'un secrétaire de séance :**

Madame Maylis DARRITCHON est désignée à l'unanimité comme secrétaire de séance.

**3 / Indemnités de fonction du Président et des Vice Présidents :**

Monsieur le Président indique qu'en vertu des dispositions de l'article L. 5211-12 du CGCT, le montant maximal pouvant être versé au Président ainsi qu'aux Vice Présidents est calculé en fonction de la strate démographique de la structure intercommunale et par référence à l'indice brut terminal de l'échelle indiciaire de la Fonction Publique soit l'indice brut 1015 (Indice majoré 821).

**1 / 2014/04/22ko Sindikatu Batzordearen txostenaren onartzea:**

2014ko apirilaren 22ko bilkurako txostena aho batez onartua izan da.

**2 / Bilkurako idazkariaren izendatzea**

Maylis DARRITCHON anderea aho batez bilkurako idazkari izendatua izan da.

**3 / Lehendakaria eta lehendakariordearen funtzio ordainsariak:**

Jaun lehendakariak jakinarazi du LEKOko L. 5211-12 artikuluko neurrien arabera, lehendakari eta lehendakariordeei ematen ahal zaien zenbateko goren kalkulatu dela herriarteko egiturako demografia geruzaren arabera Funtzio Publikoko indize eskalaren azken indize gordina jarraikiz, hau da, 1015 indize gordina (821 indize emendatua).

Le Syndicat Mixte Garbiki appartient à la strate démographique de 10 000 à 19 999 habitants. A ce titre, les indemnités mensuelles maximales pouvant être allouées (Valeur au 01/07/10 - Décret n° 2010-761 du 07/07/10) sont les suivantes :

- 21.66 % de l'indice brut 1015 pour le Président.
- 8.66 % de l'indice brut 1015 pour chaque Vice Président attributaire d'une délégation de fonctions accordé par le Président.

Il convient de se prononcer sur l'application de ces dispositions effectives à compter du 23/04/14.

Monsieur le Président propose au Conseil Communautaire de fixer ces indemnités de fonction comme suit :

- 513.20 € pour le Président.
- 342.14 € pour chaque Vice Président attributaire d'une délégation de fonctions accordé par le Président.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

#### **4 / Délégations d'attributions du Comité Syndical au Président :**

Monsieur le Président indique qu'en vertu des dispositions de l'article L. 5211-10 du CGCT, le Comité Syndical a la possibilité de déléguer à son Président un certain nombre d'attributions.

Considérant qu'il est dans l'intérêt de la bonne marche de l'administration intercommunale de permettre au Président d'intervenir sur délégation, il est proposé au Comité Syndical d'accorder à Monsieur le Président, pour la durée de son mandat, les délégations suivantes :

- Prendre toute décision concernant la préparation, la passation, l'exécution et le règlement des marchés d'un montant inférieur à 80 000 € HT lorsque les crédits sont prévus au budget.
- Passer les contrats d'assurance et accepter les indemnités de sinistres y afférents.
- Fixer les rémunérations et régler les frais et honoraires des avocats, notaires, avoués, huissiers de justice et experts.

Garbiki Sindikatu anitza 10.000tik 19.999ra biztanleko demografia geruzan sartzen da. Gisa horretara, ematen ahal den hilabeteko ordainsari gorenak (10/07/01eko balorea – 10/07/07ko 2010-761. dekretua) hauek dira:

- Lehendakariarentzat, 1015 indize gordinaren %21,66.
- Lehendakariak eman ordezkarietza funtzioa duen lehendakariorde bakoitzarentzat, 1015 indize gordinaren %8,66.

2014/04/23ko beharko da erabaki bat hartu neurri horiei buruz.

Jaun lehendakariak proposatu dio Elkargoko Kontseiluari funtzio ordainsariak honela finkatzea:

- 513,20 € lehendakariarentzat.
- 342,14 € lehendakariak eman ordezkarietza funtzioa duen lehendakariorde hartzedun bakoitzarentzat.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

#### **4 / Sindikatu Batzordeko esleitze ordezkarietza lehendakariari:**

Jaun lehendakariak jakinarazi du LEKOko L. 5211-10 artikuluko neurrien arabera, Sindikatu Batzordeak lehendakariari ahalmen desberdinak bere esku uzteko aukera duela.

Herriarteko administrazioa ongi ibiltzeko lehendakariak ahalmenak ukan behar dituela estimatuz, Sindikatu Batzordeari proposatu zaio jaun lehendakariari ondoko ahalmenak ematea bere agintaldi denborarako:

- Erabaki oro hartzea tratuen prestakuntza, eskuratze, gauzatze eta ordaintzeentzat, 80.000 € -BEZa gabe- baino guttiagoko zenbatekoarentzat kredituak aurrekontuan aurreikusiak direnean.
- Asurantza kontratuak egitea eta ezbeharren kalte-ordainak onartzea.
- Lansariak finkatzea eta abokatu, notario, justizia-uxer eta esperten gastu eta ordainsariak pagatzea.

Lors de chaque réunion du Comité Syndical, le Président rendra compte de ses attributions exercées par délégation de l'organe délibérant.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **5 / Approbation du Compte administratif 2013 :**

Monsieur le Président quitte la séance et laisse le soin à Monsieur Xavier LACOSTE de présenter les résultats du compte administratif 2013 qui se clôture comme suit :

- Section de fonctionnement : + 150 770.85 €
- Section d'investissement : - 70 147.30 € (- 82 822.10 € en intégrant les restes à réaliser).

Monsieur Xavier LACOSTE propose de procéder à l'approbation du Compte administratif 2013.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **6 / Approbation du Compte de gestion 2013 :**

Monsieur le Président indique que le compte de gestion de Mme le Trésorier est identique au Compte administratif du Syndicat Mixte Garbiki.

Monsieur le Président propose d'approuver le compte de gestion 2013 du Syndicat Mixte Garbiki.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **7 / Affectation de résultat 2013 :**

Monsieur le Président propose d'affecter le résultat 2013 de la manière suivante :

- **SECTION DE FONCTIONNEMENT :**

Résultat de l'exercice	+ 38 064.25 €
Résultat reporté 2012 (002)	+ 112 706.60 €
Résultat de clôture	+ 150 770.85 €

- **SECTION D'INVESTISSEMENT :**

Résultat de l'exercice	- 43 605.71 €
Résultat reporté 2012 (001)	- 26 541.59 €

Sindikatu Batzordearen bilkura oroz, lehendakariak, erakunde erabakitzaileak ordezkartuz bete dituen bere ahalmenez kontu emanen du.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **5 / 2013ko kontu administratiboaren onarpena:**

Jaun lehendakaria bilkuratik joan da eta Xavier LACOSTE jauna utzi du 2013ko kontu administratiboaren emaitzak aurkezten. Honela bururatu izan da:

- Funtzionamendu saila: + 150.770,85 €
- Inbertsio saila: - 70.147,30 € (- 82.822,10 € egitekoak diren gaineratikoak sartuz).

Xavier LACOSTE jaunak proposatu du 2013ko Kontu administratiboa bozkatzea.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **6 / 2013ko kudeaketa kontuaren onartzea:**

Jaun lehendakariak jakinarazi du andere diruzainaren kudeaketa kontua eta Garbiki Sindikatu Anitzaren kontu administratiboa berdinak direla.

Jaun lehendakariak 2013ko kudeaketa kontua bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **7 / 2013ko emaitzen esleitzea**

Jaun lehendakariak proposatu du 2013ko emaitza honela esleitzea:

Résultat cumulé	-	70 147.30 €
Reste à réaliser - Dépenses -		24 794.80 €
Reste à réaliser - Recettes -		12 120.00 €
Solde RAR	-	12 674.80 €
Besoin de financement	-	82 822.10 €

- AFFECTATION DU RESULTAT DE LA SECTION DE FONCTIONNEMENT :

En couverture du besoin de financement de la section d'investissement (1068)	82 822.10 €
En dotation complémentaire (1068)	-
Total 1068	82 822.10 €
En excédent reporté à la section de fonctionnement (002)	67 948.75 €

- TRANSCRIPTION BUDGETAIRE DE L'AFFECTATION DE RESULTAT :

Section de Fonctionnement		Section d'Investissement	
Dépenses	Recettes	Dépenses	Recettes
-	002 : 67 948.75 €	RAR : 24 794.80 € 001 : 70 147.30 €	RAR : 12 120.00 € 1068 : 82 822.10 €

- FUNTZIONAMENDU SAILA:

Finantza aldiaren emaitza	+ 38.064,25 €
2012ko emaitza erakarria 2012 (002)	+ 112.706,60 €
Bururapeneko emaitza	+ 150.770,85 €

- INBERTSIO SAILA:

Finantza aldiaren emaitza	- 43.605,71 €
2012ko emaitza erakarria (001)	- 26.541,59 €
Metatu emaitza	- 70.147,30 €
Obratzekoak - Gastuak -	24.794,80 €
Obratzekoak - Irabaziak -	12.120,00 €
Obratzekoak - Balantza	- 12.674,80 €
Finantzaketa beharra	- 82.822,10 €

- FUNTZIONAMENDU SAILEKO EMAITZA ESLEITZEA:

Inbertsio saileko finantzaketa beharraren geriza gisa (1068)	82.822,10 €
Hornidura osagarri gisa (1068)	-
Orotara 1068	82.822,10 €
Funtzionamendu sailera erakarria den soberakina (002)	67.948,75 €

- EMAITZA ESLEITZEAREN AURREKONTU TRANSKRIPZIOA:

Funtzionamendu saila		Inbertsio saila	
Gastuak	Irabaziak	Gastuak	Irabaziak
-	002: 67.948,75 €	Obratzekoak: 24.794,80 € 001: 70.147,30 €	12.120,00 € 1068: 82.822,10 €

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **8 / Vote de la Taxe d'Enlèvement des Ordures Ménagères (TEOM) pour 2014 :**

Monsieur le Président rappelle que par délibération en date du 11/10/05, le Comité Syndical de "Garbiki" a décidé de mettre en place sur l'ensemble de ses communes membres un zonage pour la perception de la TEOM.

Dans ce cadre, il est proposé au Comité Syndical de fixer les taux d'imposition suivants :

- Commune d'Armendaritz : 11.49 %
- Communes d'Iholdy : 10.80 %
- Commune d'Irissarry : 9.98 %
- Commune de Lantabat : 14.91 %
- Commune de Suhescun : 16.79 %

Pour sa part, la Communauté de Communes du Pays de Hasparren a délibéré - lors de sa séance du 29/04/14 - sur les taux d'imposition suivants :

- Commune d'Ayherre : 8.64 %
- Commune de Bonloc : 10.12 %
- Commune de Briscous : 11.96 %
- Commune de Hasparren : 11.57 %
- Commune de Hélette : 10.41 %
- Commune d'Isturitz : 11.09 %
- Commune de La Bastide Clairence : 9.93 %
- Commune de Macaye : 9.71 %
- Commune de Mendionde : 9.35 %
- Commune de Saint Esteben : 11.27 %
- Commune de Saint Martin d'Arbèroue : 10.85 %

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **9 / Vote du Budget Primitif 2014 :**

Monsieur le Président donne lecture du Budget Primitif 2014 qui s'équilibre à 1 615 000 € en fonctionnement et à 426 000 € en investissement.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **8 / Etxeko hondarkinen bilketarako zergaren bozkatzea 2014rako:**

Jaun lehendakariak oroitarazi du 2005/10/11ko erabakiaren ondotik Garbiki Sindikatu Batzordeak zonakatzeko bat plantan ezarri zuela kide dituen herri guzietan etxeko hondarkinen bilketarako zergaren biltzeko.

Karia horretara, Herri Elkargoko Kontseiluari proposatua izan zaio ondoko zerga tasa finkatzea:

- Armendaritzen: %11,49
- Iholdin: %10,80
- Irisarrin: %9,98
- Landibarren: %14,91
- Suhuskunen: %16,79

Bere aldetik, Hazparneko Herri Elkargoak bere 2014/04/29ko bilkuran ondoko zerga tasak finkatzea erabaki du:

- Aiherran: %8,64
- Lekuinen: %10,12
- Beskoitzen: %11,96
- Hazparnen: %11,57
- Heletan: %10,41
- Izturitzen: %11,09
- Bastidan: %9,93
- Makean: %9,71
- Lekornen: %9,35
- Donoxtirin: %11,27
- Donamartirin: %10,85

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **9 / 2014ko jatorrizko aurrekontuaren bozkatzea:**

Jaun lehendakariak 2014ko jatorrizko aurrekontua jakinarazi du: 1.615.000 € funtzionamenduarentzat eta 426.000 € inbertsioarentzat.

Afin d'augmenter le pourcentage des foyers équipés d'un composteur, Madame Maité DUHALDE souhaite savoir si une distribution directement en Mairie est envisageable.

Le Comité Syndical valide sur le principe cette proposition et Monsieur le Président propose aux services d'étudier les modalités pratiques de ces futures distributions.

Monsieur le Président propose de voter par chapitre le budget 2014.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

## **10 / Approbation du Contrat de Territoire 2013-2016 :**

Monsieur le Président rappelle que par délibération en date du 29/11/12, le Département des Pyrénées-Atlantiques s'est engagé dans une nouvelle politique de développement territorial.

Cette nouvelle politique contractuelle prévoit le financement des projets d'investissement de tous les acteurs publics, à l'échelle des périmètres intercommunaux, à hauteur de 200 millions d'euros sur la période 2013-2016.

L'enveloppe territoriale allouée à nos 11 communes s'élève, quant à elle, à 5 534 422 €

Dans ce cadre, une 1ère conférence a permis de dresser le portrait de notre territoire. Les collectivités locales ont ensuite été invitées à transmettre à leur Conseiller Général les projets qu'elles souhaitent mettre en œuvre pour les 4 prochaines années en cohérence avec les enjeux de développement du portrait de territoire.

A l'issue de cette phase, une 2ème conférence a été l'occasion de confronter les propositions du Conseil général et des élus locaux et ce, afin d'aboutir à un programme d'investissement pluriannuel.

Il est ainsi proposé au Comité Syndical de :

- Valider le contrat territorial du Pays de Hasparren dont la partie concernant notre syndicat est détaillée ci-dessous.
- Autoriser Monsieur le Président ou son représentant à effectuer l'ensemble des démarches relatives à ce dossier et à signer l'ensemble des documents y afférents.

Konpostagailu bat duten familien ehuneko iaigaiteko, Maite DUHALDE andreak nahi zuen jakin banaketa herriko etxean berean egitea posible ote zen.

Sindikatu batzordeak proposamen hori balioetsi du eta jaun lehendakariak zerbitzuei proposatu die eginen diren banaketa horiek nola gauzatuko diren aztertzea.

Jaun lehendakariak 2014ko aurrekontua kapituluka bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

## **10 / 2013-2016 Lurralde Kontratuaren onarpena:**

Jaun lehendakariak oroitarazi du 2012/11/29ko erabakiaren arabera, Pirinio Atlantikoetako departamentua engaiatu dela lurralde garapen politika berri batean.

Kontratuzko politika berri horretan eragile publiko guzien inbertsio proiektuak finantzatzea aurreikusia da, herriarteko mailan, 200 milioi eurotaraino 2013-2016 denboraldian.

Gure 11 herriei eman lurralde aurrekontua 5.534.422 €takoa da.

Horren kariatara, hitzaldi baten bidez gure lurraldea itxuratu ahal izan da. Ondotik lekuko elkargoei galdegina izan zaie haien kontseilari nagusiari ematea ondoko 4 urteetan plantan ezarri nahi zituzten proiektuak, lurraldearen itxuraren erronka garapenarekin koherentzian.

Fase horren ondotik, 2. hitzaldi baten bidez Kontseilu Nagusiaren eta lekuko hautetsien proposamenak erkatu dira, zenbait urtetarako den inbertsio programa batera heltzeko.

Beraz, Sindikatu Batzordeari proposatua zaio:

- Hazparneko Lurralde Kontratua balioestea –gure sindikatuari doakion parte behereko taulan zehaztua da–.
- Jaun lehendakaria baimentzea dossier honi lotua den desmarxta oro egiteko, eta horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Objet de la demande	Coût Global Travaux	Coût estimatif	Taux prévisionnel CG 64	Montant prévisionnel CG 64
Réhabilitation des décharges sauvages - Diagnostic		5 000,00	40,00	2 000,00
Réhabilitation des décharges sauvages - Travaux		50 000,00	30,00	15 000,00
Equipements de collecte	60 000,00	30 000,00	30,00	9 000,00
Individualisation du mode de collecte	330 000,00	165 000,00	30,00	49 500,00
Modernisation des déchetteries		60 000,00	30,00	18 000,00

Galdearen gaia	Obren kostu orokorra	Estimatutako kostua	Aurreikusi tasa KN 64	Aurreikusi zenbatekoa CG 64
Zikintegi basen errehabilitazioa - Diagnostikoa		5.000,00	40,00	2.000,00
Zikintegi basen errehabilitazioa - Obrak		50.000,00	30,00	15.000,00
Bilketa hornidurak	60.000,00	30.000,00	30,00	9.000,00
Bilketa moldearen indibidualizazioa	330.000,00	165.000,00	30,00	49.500,00
Hondarkintegiaren modernizazioa		60.000,00	30,00	18.000,00

Il convient, ici, de préciser que les décaissements envisagés en 2014 sont les suivants :

- Réhabilitation des décharges sauvages - Diagnostic : 2 000 € TTC.
- Réhabilitation des décharges sauvages - Travaux : 30 000 € TTC.
- Equipements de collecte : 24 000 € TTC.
- Individualisation du mode de collecte : 66 000 € TTC.

Les dépenses 2013 relatives à ces opérations, ont, par ailleurs, été les suivantes :

- Réhabilitation des décharges sauvages - Diagnostic : 358.80 € TTC.
- Equipements de collecte : 12 648.90 € TTC.
- Individualisation du mode de collecte : 60 096.87 € TTC.

Hauek dira 2014ko aurreikusiak diren gastuak:

- Zikintegi basen errehabilitazioa - Diagnostikoa: 2.000 € BEZa barne
- Zikintegi basen errehabilitazioa - Obrak: 30.000 € BEZa barne
- Bilketa hornidurak: 24.000 € BEZa barne
- Bilketa moldearen indibidualizazioa: 66.000 € BEZa barne

Bestalde, operazio horiei lotu 2013ko gastuak hauek izan dira:

- Zikintegi basen errehabilitazioa - Diagnostikoa: 358,80 € BEZa barne
- Bilketa hornidurak: 12.648,90 € BEZa barne
- Bilketa moldearen indibidualizazioa 60.096,87 € BEZa barne

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **11 / Mise en place d'une Protection Sociale Complémentaire :**

Monsieur le Président rappelle que la loi n° 84-53 du 26/01/84 modifiée portant dispositions statutaires relatives à la fonction publique territoriale (art. 88-2) ouvre la possibilité aux employeurs publics (Etat, Collectivités locales, Hôpitaux...) de participer financièrement aux garanties de protection sociale souscrites par leurs agents en matière de santé et/ou de prévoyance.

Les modalités de mise en œuvre de cette participation étaient renvoyées à la publication d'un décret d'application ; le décret n° 2011-1474 du 8 novembre 2011 relatif à la participation des collectivités territoriales et de leurs établissements publics au financement de la protection sociale complémentaire de leurs agents détaille les possibilités ouvertes aux employeurs territoriaux.

Le bénéfice de la participation d'un employeur territorial est réservé aux seuls contrats et règlements qui garantissent la solidarité intergénérationnelle entre les agents souscripteurs. A ce titre, les collectivités peuvent pour chacun des risques concernés :

- Soit aider les agents qui auront souscrit un contrat ou adhéré à un règlement qui aura été préalablement labellisé.
- Soit engager une procédure de mise en concurrence à l'issue de laquelle une convention de participation sera conclue avec un seul opérateur.

Le Comité Technique Intercommunal a d'ailleurs émis un avis favorable aux démarches de labellisation en matière de santé et de prévoyance lors des séances du 03 juillet 2012 et du 09 octobre 2012.

Dans ce cadre, il est proposé au Comité Syndical d'adopter le principe d'une participation de la collectivité au financement des garanties de protection sociale complémentaire selon les modalités suivantes :

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **11 / Gizarte geriza osagarri baten plantan ezartzea:**

Jaun lehendakariak oroitarazi du 1984/01/26ko 84-53. lege aldatuak –lurraldeko funtzio publikoari buruzko estatutu neurriez ari dena (88-2 art.)– aukera ematen duela publikoko langileei (Estatua, Lekuko elkargoak, ospitaleak...) diruz parte hartzea haien agenteek osasun eta aurreikuspen mailan hartu duten gizarte geriza garantietan.

Parte hartze horren plantan ezartzeko modalitateak gauzatze dekretu baten argitalpena igorriak ziren; 2011ko azaroaren 8ko 2011-1474. dekretuak, lurralde elkargo eta hauen eraikin publikoen parte hartzeari lotua haien langileen gizarte geriza osagarrientzat, zehazten ditu lurralde enplegatzaileei eskainiak zaizkien posibilitateak.

Lurralde enplegatzaile baten parte hartzearen etekina, agente hartzaileen belaunaldien arteko elkartasuna segurtatzen duten kontratu eta araudientzat da bakarrik. Hortaz, elkargoek posible dute arrisku bakoitzarentzat:

- Edo kontratu bat hartu duten edo aitzinetik labelizatua izan den araudi bati batu agenteak laguntzea.
- Edo lehian ezartze prozedura martxan ezartzea, zeinen bukaeran parte hartze hitzarmen bat izenpetuko den eragile bakar batekin.

Herriarteko Batzorde Teknikoak aldeko iritzia adierazi du osasun eta aurreikuspen labelizatze desmartzentzat 2012ko uztailaren 3ko eta 2012ko urriaren 9ko bilkuretan.

Karia horretara, Sindikatu Batzordeari proposatu zaio hautatzea elkargoaren parte hartzea gizarte geriza garantia osagarrien finantzatzean, ondoko modalitateen arabera:



- La collectivité décide de mettre en place une participation au financement des garanties de protection sociale complémentaire du personnel à compter du 01/07/14 dans les domaines de la Santé et de la Prévoyance.
- Les fonctionnaires stagiaires et titulaires ainsi que les agents non titulaires de droit public en activité sur un emploi permanent bénéficieront de cette participation.
- Le montant de la participation brute versée mensuellement sera le suivant :
  - Pour le **risque Santé**, 10 € / agent. A ce montant, s'ajoutera - sur la base du versement du supplément familial de traitement - une majoration mensuelle prévue en fonction de la cellule familiale : 3 € pour un enfant - 6 € pour deux enfants - 9 € pour trois enfants et +.
  - Pour le **risque Prévoyance**, 10 € / agent.
- La participation sera versée directement à l'agent par le biais de son bulletin de salaire.

Sur la base des avis du Comité Technique Intercommunal des 03/07/12 et 09/10/12, il est proposé au Comité Syndical de :

- Adopter les propositions précitées.
- Autoriser Monsieur le Président ou son représentant à effectuer l'ensemble des démarches relatives à ce dossier et à signer l'ensemble des documents y afférents.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **12 / Utilisation par les professionnels des déchetteries de Briscous et de Hélette - Actualisation des tarifs :**

Monsieur le Président indique qu'il est proposé au Comité Syndical d'actualiser - à compter du 01/06/14 - les tarifs appliqués aux professionnels utilisant les déchetteries de Hélette et de Briscous.

Ces tarifs s'appliqueront dans le respect du règlement intérieur des déchetteries en vigueur.

Monsieur Antton ALKHAT souhaite savoir si Syndicat Mixte Garbiki est susceptible d'apporter un appui logistique - type mise à disposition temporaire d'un quai de déchargement au sein des déchetteries - afin de rendre plus efficiente les collectes de films agricoles usagés (FAU).

Elkargoak erabakitzen du plantan ezartzea parte hartze bat geriza osagarri finantzatzean 2014/07/01etik goiti osasun eta aurreikuspen alorretan.

- Ikasle funtzionarioek eta tituludunek baita ere lanpostu iraunkorrean diren zuzenbide publikoko tituludun ez diren langileek, parte hartze hortaz baliatzen ahalko dute.
- Hilabetero emanen den parte hartzearen zenbateko gordina hau izanen da:
  - **Osasun arriskuarentzat**, 10 € langileka. Horri gehituko zaio hilabeteko emendatze bat - tratatze familia gehigarriaren ordainketaren oinarrian-, familia egituraren arabera izanen dena: 3 € haur batentzat - 6 € bi haurrentzat - 9 € hiru haur eta gehiagorentzat.
  - **Aurreikuspen arriskuarentzat**, 10 € langileka.
- Parte hartzea zuzenki langileari emanen zaio bere lansariaren bitartez.

2012/07/03 eta 2012/10/09ko Herriarteko Batzorde Teknikoaren aholkuetan oinarrituz, Sindikatu Batzordeari proposatu zaio:

- Ganean aipatu proposamenak onartzea
- Jaun lehendakaria edo bere ordezkaria baimentzea dossier honi lotua den desmarta oro egiteko, eta horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **12 / Beskoitze eta Heletako hondarkintegien erabilitzea profesionalentzat. Prezioen eguneratzea:**

Jaun lehendakariak jakinarazi du Sindikatu batzordeari proposatu zaiola 2014/06/01etik goiti dituzten profesionali aplikatzen diren prezioen eguneratzea Heleta eta Beskoitzeko hondarkintegien erabilpenerako.

Prezio horiek hondarkintegien barne araudien arabera aplikatuko dira.

Antton ALKHAT jaunak jakin nahi zuen Garbiki Sindikatu Anitzak pentsatu ote zuen laguntza logistikoa ematea -adibidez hondarkintegietan aldi bateko deskargatze kai bat ezarriz- erabilitako laborantzako mintzen bilketa eraginkorragoa izateko.

Monsieur le Président se propose d'étudier cette possibilité et rajoute, par ailleurs, qu'une communication accrue à destination des vendeurs de consommables agricoles sera effectuée afin de leur rappeler les possibilités offertes en matière de collecte de déchets professionnels.

Monsieur le Président propose de voter les tarifs proposés.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **13 / Indemnité de conseil allouée à Madame le Trésorier de Hasparren :**

Monsieur le Président indique que conformément aux dispositions de l'arrêté ministériel du 16 décembre 1983, il est proposé au Comité Syndical d'attribuer l'indemnité de conseil au taux maximum à Madame le Trésorier de Hasparren pour 2014.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **14 / Réaffirmation du rejet total de toute recherche de sites d'enfouissement sur le territoire du syndicat mixte Garbiki :**

Monsieur le Président rappelle que par délibération en date du 06/01/09, le Comité Syndical a, à l'unanimité :

- Exprimé sa totale et indéfectible solidarité avec la commune de Hasparren quant à sa décision de procéder à la fermeture définitive du CET d'Hazketa - site dont cette commune est propriétaire - à l'expiration de la durée d'exploitation contractuelle en 2015.  
En effet, le contrat initial d'une durée de 20 ans arrive à échéance cette année là, et Monsieur Beñat Inchauspé a rappelé que bon nombre d'engagements contractuels n'ont pas été respectés de la part de la Société SITA France Déchets qui exploite ce site comme notamment, la réalisation d'un centre de tri digne de ce nom avec les emplois afférents, la construction d'une déchetterie aux frais exclusifs de la société tant en investissement qu'en fonctionnement, sans compter les désagréments de toute nature dont celles visuelles et olfactives générées par l'exploitation du site.

Jaun lehendakariak proposamen hori aztertzea proposatu du eta gehitu du, bestalde, komunikazio handiagoa egingen dela laborantzako kontsumigarri saltzaileei begira oroitarazteko hondarkin profesionalentzat existitzen diren bilketak.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **13 / Hazparneko diruzain andereari eman ordainsaria:**

Jaun lehendakariak jakinarazi du, 1983ko abenduaren 16ko ministerio erabakiaren arabera Sindikatu Batzordeari proposatu zaiola Hazparneko diruzain andereari 2014ko ordainsaria tasa gorenean ematea.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **14 / Garbiki Sindikatu Anitzaren lurraldean lurperatze gune bilaketa ororen errefusa berrestea:**

Jaun lehendakariak oroitarazi du 2009/01/06ko erabakiaren arabera, Sindikatu Batzordeak aho batez adierazi duela:

- Bere elkartasun oso eta aldagaitza Hazparneko Herriko Etxearekin, Hazketako lurperatze tekniko gunea hesteko erabakiarentzat -Hazparneko Herriko Etxea gunearen jabe da- honen ustiatzeko kontratua bukatuko denean, 2015ean.

Izan ere, 20 urteko iraupena zuen jatorrizko kontratua 2015ean bukatuko da eta Beñat INCHAUSPE jaunak oroitarazi du SITA France Déchets Sozietateak kontratuko engaiamendu anitz ez zituela errespetatu, bereziki bereizketa gune on baten egitea, zoakion lanpostuekin, hondarkintegi baten eraikitzea sozietateak ordaindurik (inbertsioa + funtzionamendua), baita ere gunearen ustiatzearen nahigabe ugariak (itsusia eta usain txarrekoa).

Ces nuisances sont constatées non seulement au niveau du voisinage immédiat mais également du cœur de la cité, avec de mauvaises odeurs à l'occasion de conditions climatiques défavorables.

- Demandé avec vigueur et détermination que le territoire du Syndicat Mixte Garbiki ne soit pas appelé à l'occasion de la recherche d'un quelconque autre site d'enfouissement, estimant qu'en vertu du principe de nécessaire solidarité territoriale dans ce type de dossier, notre territoire n'est plus à solliciter dans la mesure où, grâce à la commune de Hasparren, il a fourni sa contribution pendant 20 ans (cf. exploitation du CET d'Hazketa sur la période 1995-2015).
- Habilité Monsieur le Président à engager toute démarche dans le sens des décisions énoncées ci-dessus ainsi qu'à signer toute pièce s'y rapportant.

Sachant que le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi vient de lancer un marché public (Marché n° 2014-06) dont l'objet est à nouveau la « Recherche de sites pour les futures installations de stockage des déchets non dangereux sur la zone ouest du territoire », Monsieur le Président propose à l'assemblée de :

- Se déclarer totalement opposé à ce qu'une nouvelle fois la commune de Hasparren soit retenue ou choisie, soit dans le cadre du site de Hazketa dont l'exploitation expire de manière contractuelle en mai 2015, soit dans le cadre du site de Lamarka cité dans le CCTP du marché précité (Marché n° 2014-06).
- Se prononcer, de la même manière, contre tout projet de ce type sur le site Lucq situé sur la commune de La Bastide Clairence et évoqué dans le même marché.
- Estimer légitimement et à juste titre que le territoire du Syndicat Mixte Garbiki, a plus que largement contribué de manière solidaire aux principes de mutualisation annoncés à l'époque en permettant l'exploitation de l'ISDND d'Hazketa afin d'y enfouir des déchets ultimes.
- Demander au Syndicat Mixte Bil Ta Garbi de renoncer aux projets précités y compris d'études sur Hasparren, La Bastide Clairence

Makur horiek auzo hurbilek jasaten dituzte, baina herri erdian ere usain txarrak sendi daitezke aroa kontrakoa delarik.

- Deliberamenduz eta indarrez galdegiten zuela Garbiki Sindikatu Anitzaren lurraldeari ez diezaion eskatua izan parte hartzea beste lurperatze gune baten bilaketan, estimatzen duelako 20 urtez bere ekarpena egin duela beharrezko lurralde elkartasunaren arabera dossier mota horretan, Hazparneko Herriko Etxeari esker (ikus Hazketako hondarkintegiaren ustiaketa 1995-2015).

- Jaun lehendakariari ahalmena eman diola desmarta oro egiteko gorago aipatu erabaki guzientzat, eta horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Jakinez Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzak merkatu publiko bat abiatu duela (2014-06. merkatua), zeinen gaia berriz ere "Hondar ez arriskutsuen biltegitratze guneen bilaketa lurraldearen mendebaldean" den, jaun lehendakariak proposatu du:

- Arrunt kontra agertzea Hazparneko Herriko Etxea berriz ere hautatua izateko edo Hazketako gunea (kontratua 2015eko maiatzean bukatuko da) edo Lamarkako gunearentzat (aipatu merkatuaren Klausula Tekniko Berezien Kaierean aipatua –2014-06. merkatua–).

- Manera berean, Bastidako Lucqeko gunean horrelako proiektu bat egitearen kontra agertzea, zeina merkatu publiko berean aipatua den.

- Bidezki eta arrazoiez estimatzea Garbiki Sindikatu Anitzaren lurraldeak nahiko eta aski elkartasunez parte hartu duela garaian aipatu mutualizazio printzipioetan, Hazketako hondarkintegiaren ustiaketa baimentzean azkeneko hondarkinak lurperatzeko.

- Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzari galdetzea gorago aipatu proiektuei uko egitea, baita ere Hazparnen, Bastidan eta Sindikatuko herri

ainsi que sur l'ensemble des communes du Syndicat et de laisser « en paix » un territoire ayant fait preuve de solidarité en la matière depuis maintenant 20 ans et qui aspire légitimement à la cessation immédiate et définitive de toutes les nuisances sus-évoquées.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

### **15 / Questions diverses :**

Sans objet.

guzietan ikerketak egitea, eta "bakean" uztea azken 20 urteetan jadanik elkartasuna erakutsia duen lurraldea, honek, bidezki, aipatu makurren berehalako eta betiko gelditzea nahi duelako.

Jaun lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Sindikatu Batzordeak aho batez onartu du.

### **15 / Gai ezberdinak:**

Funtsik gabe.

La séance est levée à 22 H 30  
Bilkura 22:30ean bukatu da

\*

\*

\*